Garraio-gastuak direla-eta, 2.700 moneta-unitate ordaindu zituen. UGAO, S. L. kontratatu zuen makina instalatzeko, eta, gainera, enpresa horretako teknikari batek prestakuntza eman zien ZALDIBAR sozietateko langile gutxi batzuei, makina erabiltzen ikasteko. UGAO sozietateak 6.900 moneta-unitateko faktura egin zion zerbitzu horiengatik, eta haietatik 3.600 moneta-unitate prestakuntza-kostuei dagozkie. Ekitaldiaren amaieran, 1.800 moneta-unitate zor zitzaizkion UGAO, S. L. sozietateari.

Makina instalatu ondoren, ikusi zen haren osagaietako batzuk aldatu egin behar zirela, aldaketa horiek beharrezkoak baitziren makinak erabat bete zitzaizkien enpresako teknikariek adierazitako beharrezkoak. Hori dela eta, honako gastu-ordainketa hauek egin ziren: prozesuan kontsumitutako material txikia, 4.800 moneta-unitate; aldaketak egin zituen enpresako langileen gastuak, 5.700 moneta-unitate.

Jarraian, funtzionamendu-probak egin ziren. Epe horretan zehar, 3.000 moneta-unitateko materialak kontsumitu ziren, eta hornidura eta eskulanaren gastuak — zenbatetsiak— 2.100 moneta-unitate izan ziren.

Produktu akastunak ekoitzi ziren, eta 1.200 moneta-unitatean saldu ziren.

2011ko urriaren 1ean, dagoeneko erabiltzeko moduan zegoen makina, baina abenduaren amaierara arte ezin izan zuen normal funtzionatu, ez zegoen-eta makina erabiltzen zekien langile nahikorik.

Amortizazio linealaren printzipioa jarraitzen du enpresak, kuota konstanteekin, estimazio hauen arabera: bizitza erabilgarria, 10 urte; salmenta-prezioa, bizitza erabilgarriaren amaieran, 2.7000 moneta-unitate, eta salmenta-kostuak, berriz, 300 moneta-unitate.

Ebazpena.

Egin beharreko kontabilitate-idazpenak egin, emandako informazioa erabiliz, eta jakinik ekitaldia abenduaren 31n ixten dela. Ez dira aintzat hartu behar eragiketa horiek guztiak zergapetzen dituzten zeharkako zergak.

3. kasua.

Planteamendua.

2011ko abenduaren 31n, MUNITIBAR, S.L. entitateak 200 obligazio ditu erregistratuta: bakoitzak 200 moneta-unitateko balio nominala du, eta ARMINTZA, S.L. entitateak jaulki zituen. Kostu amortizatuan ditu erregistratuta: 49.000 moneta-unitatean, alegia, mugaegunera arte mantendutako inbertsio-zorroaren parte baitira (mugaegun hori 2012ko abenduaren 31n dago finkatuta).

2011ko ekitaldiaren itxieran, obligazio horien narriatzeari buruzko ebidentzia objektiboa dago. 2011ko ekitaldiaren itxieran, haien kotizazioa (ex-kupoi) % 115 da.

Ebazpena.

Egin beharreko kontabilitate-idazpenak egin.

II. Sozietateen kontabilitatea.

4. kasua.

Planteamendua.

Honako hau da LEKEITIO, S.A. sozietateak 2011ko abenduaren 31n duen balantzearen eskema:

AKTIBOA		ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	
Aktibo korronteak eta ez-korronteak	3.200.000	Kapital soziala (84.000 akzio; BN: 10 moneta-unitate) (160.000 akzio; BN: 5 moneta-unitate) Jaulkipen-prima Legezko erreserba Borondatezko erreserba Merkataritza-funtsagatiko erreserba Kapital amortizatuagatiko erreserba Ekitaldiko emaitza Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak Epe luzerako akzioak, finantza-pasibotzat jotakoak (17.200 akzio, erreskatagarriak; BN: 10 moneta-unitate) Beste pasibo korronte batzuk	1.640.000 376.000 200.000 384.000 30.000 112.000 392.800 -226.400 172.000 119.600
Guztira	3.200.000	Guztira	3.200.000

Sozietate honek burtsan kotizatzen du, eta honako erabaki hauek hartu ditu batzar nagusian:

1- Kapitala zabaltzea, diruzkoak ez diren ekarpenen truke (zenbait lursailen truke), ekarpenon arrazoizko balioa 360.000 moneta-unitate izanik. Zabalkundea egiteko, 10 moneta-unitateko balio nominala duten boto eskubiderik gabeko akzioak jaulkiko ditu, eta akzio horiek guztiak finantza-pasibotzat hartuko dira. Ekarpen-egileek 160.000 moneta-unitateko lursailak emango dituzte harpidetzaren unean, eta gainerakoa,

handik eta urtebetera. Akzio horien jaulkipen-balioa akzio horiek duten balio teorikoa baino moneta-unitate bat handiagoa izango da.

2- Kapitala erreserben kontura zabaltzea, Kapital Sozietateen Legeko Testu Bateginak baimentzen duen gehieneko zenbatekoan; horretarako, 10 moneta-unitateko balio nominala duten akzioak jaulkiko dira (zabalkunde hau egiteko, balantzeko datuak hartu behar dira).

Ebazpena.

Erabakitako kapital-zabalkunde horietako bakoitzari dagozkion kontabilitate-idazpenak egin.

III.- Finantzaketako egoera-orrien baterakuntza.

5. kasua.

Planteamendua.

2010eko abenduaren 31n, GORDEXOLA, S.L. entitateak LANESTOSA, S.L. sozietatearen % 60 eskuratu zuen, 9.000 moneta-unitatean. Egun horretan, LANESTOSA, S.L. sozietatearen funts propioak 17.000 moneta-unitate ziren.

2010eko abenduaren 31n, GORDEXOLA, S.L. entitateak LANESTOSA, S.L. sozietatearen % 60 eskuratu zuen, 15.000 moneta-unitatean. Egun horretan, MARKINA, S.L. sozietatearen funts propioak 30.000 moneta-unitate ziren. Sozietate hori talde anitzeko sozietatetzat jotzen da.

2016ko abenduaren 31n, funts propioak —emaitzak sartu gabe— hauek dira (kontuan hartu sozietate batek ere ez duela burtsan kotizatzen):

	Funts propioak Kapitala eta erreserbak (moneta-unitateak)
GORDEXOLA, S.L.	80.000
MARKINA, S.L.	47.000
LANESTOSA, S.L.	31.000

Kontuan hartu behar da sozietate indibidualen funts propioak eta ondare garbia bat datozela, uneoro.

Ebazpena.

Kontabilitateko egunkarian kasu hauetako bakoitzean egin beharreko idazpena egin:

a) 2010eko abenduaren 31ko balantze bateratua prestatzeko, LANESTOSA, S.L. sozietateko partaidetza dela-eta egin beharreko doikuntzari dagokion idazpena.

b) 2011ko abenduaren 31ko balantze bateratua prestatzeko, MARKINA, S.L. sozietateko partaidetza dela-eta egin beharreko doikuntzari dagokion idazpena.

c) 2016ko abenduaren 31ko balantze bateratua prestatzeko, MARKINA, S.L. sozietateko partaidetza dela-eta egin beharreko doikuntzari dagokion idazpena.

d) 2016ko abenduaren 31ko balantze bateratua prestatzeko, LANESTOSA, S.L. sozietateko partaidetza dela-eta egin beharreko doikuntzari dagokion idazpena.

IV.- Finantza-matematika.

6. kasua.

Planteamendua.

Inbertsio-proiektu baten ordainketen eta kobruen sekuentzia analizatzerakoan estimazio hauek egin dira:

* Inbertsioaren egin edo hasi eta hirugarren urtetik aurrera gertatuko dira kobruak (lehenengo bi ekitaldietan ez dago kobrurik). Kobru horiek izaera postpagablea dute, eta hilerik gertatzen dira; % 3 haziko dira urtero, modu metatuan (progresio geometrikoan). Lehenengo urterako estimatutako sarrerak (hirugarren urtea izango da hori hasieratik zenbatuta) 100.000 euro dira, hilean.

* Ordainketen zenbatekoa konstantea da, ordainketa pospagableak dira:

- 1) 60.000 euro, hiru hilerik behin, lehenengo 4 urteetan, eta
- 2) 80.000 euro, hauek ere hiru hilerik behin, azken 6 urteetan.

* Inbertsio hauek egiteko hasierako ordainketa milioi bat euro da.

* Analisiaren horizonte ekonomikoa 10 urte dira.

* Proiektua baloratzeko, urteko portzentaje efektibo hau erabiliko da: % 8.

Ebazpena.

Honako hauek atera eta arrazoitu egin behar dira:

- a) Kobruen balio eguneratua.
- b) Ordainketen balio eguneratua.
- c) Inbertsio-proiektu honen balio eguneratu garbia (VAN).

7. kasua.

Planteamendua.

MARURI, S.L. entitateak milioi bat euro behar ditu material elektrikoa fabrikatzeko nahi duen industria-nabea eraiki ahal izateko. Inbertsio hori finantzatzeko, mailegu bat lortu du, zenbateko horretakoa, eta 12 urterakoa. Lehenengo urte bietan gabealdia du amortizazioa dela-eta (interes-en kuotak soilik ordaintzen dira). Amortizazioa gainerako 10 urteetan egingo da, urteko konstanteen bidez. Interes-tasa % 7 da lehenengo bi urteetan, eta % 6, berriz, gainerakoetan.

Ebazpena.

Honako hauek atera eta arrazoitu egin behar dira:

- a) Lehenengo urte bietan zein gainerako hamar urteetan ordaindu beharreko urtekoak.
- b) Bigarren eta seigarren urteko interes-en kuotak.
- c) Urte bi horietako amortizazio-kuotak.
- d) Eragiketa hasi zenetik 8 urte oso igaro ondoren geratzen den mailegu bizia.



OPOSIZIOA - FINANTZEN IKUSKATZAILEAK
KASU PRAKTIKO PROFESIONALA
A EREDUA

Planteamendua.

A) Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasuneko zuzendari nagusi jaunaren 2012ko abuztuaren 10eko erabakiaren bidez, agindu da Ikuskatzeko Planean sartzea “Componentes Eléctricos SA” erakundea, agerraraziz sartze hori erabaki dela izaera orokorraz, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Ikuskapenaren Araudiko 23 artikuluan aurrez ikusitakoaren ondoreetarako.

2012ko abuztuaren 20an, Ikuskapeneko zuzendariorde jaunak ezarri du honako hauek izatea egiaztatu eta ikertzeko prozeduraren xedeko tributuzko kontzeptu eta zergaldiak:

* Sozietateen gaineko zerga, 2008, 2009, 2010 eta 2011 ekitaldiak.

* Balio Erantsiaren gaineko Zerga, 2008, 2009, 2010 eta 2011 urteei dagozkien likidazio-aldiak.

Kontzeptu eta zergaldi hauek aukeratu dira, zeren erakundeak ekitaldian bakarrik aurkeztu baititu zerga hauei buruzko autolikidazioak.

X finantza-ikuskatzaileari esleitu zaio sozietate horren egiaztatzea eta ikuskaritza, zeina Bizkaian kokaturiko konpainia horren gizarte eta zerga egoitzan azaldu baita 2012ko irailaren 4an.

Une horretan, X finantza-ikuskatzaileak erakundearen administratzaile bakarrari entregatu dio jarduketan hasiera jakinarazteko komunikazioa, non agerrarazten dion beronen xede diren kontzeptu eta aldiak Ikuskapeneko zuzendariordeak finkatuak direla. Horrez gainera, komunikazio horren bidez, errekerimendua egin dio zergadunari, ikuskatzaileari berari bertaratu dakion Bizkaiko Foru Ogasuneko bulegoetan 2012ko irailaren 10ean, berekin dakartzala, sozietateak berrikusten diren ekitaldietan eginiko kontabilitate nagusia eta osagarria.

Erakundearen administratzaile bakarrak identifika dadila eskatu dio finantzen ikuskatzaileari, eta esan dio eragozpenak dituela Bizkaiko Foru Ogasunera kontabilitate-liburu ofizialen jatorrizkoarekin joateko.

Une horretan, finantzen ikuskatzailea, bere burua identifikatzeko, Nortasun Agiri Nazionala erakutsi dio zergapekoari, eta ohartarazi dio zigortu egin dezakeela ikuskapeneko jarduerari eginiko erresistentzia, eragozpen, aitzaki edo ezetzagatik. Gauzak horrela, erakundearen administratzaileak sinatu eta jaso egin du emaniko komunikazioa.

2012ko irailaren 10ean, administratzailea bertaratu da Bizkaiko Foru Ogasuneko bulegoetan, konpainiaren zerga-aholkulariarekin batera. Aktuarioarekin biek duten batzarrean entregatzen diote dokumentazio eskatua, argitu egin dizkiote zenbait gai enpresaren jarduteko erari buruz, eta zenbait dokumentazio aurrez ematen diote, uste izanik aktuarioari erraztu egingo diola autolikidazioetan adierazi diren datuen ulermena; horrez gainera, esan diote egokia dela, prozedura horren ondoriozko hurrengo jarduketetan, aholkulariarekin berarekin zuzenean biltzea, administratzailearen agenda beterik baitago.

Finantzen ikuskatzaileak komunikatu die, horretarako, aholkulariak notario-ahalorde bat eduki behar duela nahitaez, zeinaren jatorrizkoa ekarri beharko baitiote hurrengo batzarrean, espedientean sartzeko.

Lehen batzar horretan, enpresaren administratzaileak eman dio aktuarioari egun horrexetan aurkeztu den 2008 ekitaldiari dagokion Sozietateen gaineko Zergaren autolikidazio osagarriaren kopia, zeinaren bidez aitortzen baita 10.000 euroko gehigarri bat, bere garaian ordaindu izan zenari gehitzeko zena, aurretiaz adierazi ziren gastu ez kengarri batzuk kentzearen ondorioz.

Batzarra amaiturik, finantzen ikuskatzaileak ale bikoiztuan emaniko akta batean jaso du haren emaitza, errekerimendua eginik zergadunari bere aurrean bertaratu dadin 2012ko irailaren 30ean.

B) Bai zergadunak emaniko informazioa eta bai Administrazioaren esku daudena jaso eta aztertuz gero, honako ondorio hauek atera ditu X finantzen ikuskatzaileak:

B.1) “Componentes Eléctricos SA” sozietatea, gizarte eta zerga egoitza Bizkaian duen konpainia bat da, “erabilera eta ekipamenduzko material elektrikoaren fabrikazioan” diharduena eta, baita, ekoizten dituen ondasunak mantendu eta konpontzeko "saldu osteko” zerbitzuak ere ematen dituena.

Haren akzioak zatiturik daude, zati berdinetan, 20.000 enplegatutik gorako espainiar multinazional baten, bere garaian enpresa sortu zuen familiako kideen eta enpresako zuzendarien artean.

Konpainiak bi lantegitan burutzen du material elektrikoa fabrikatzeko bere jarduera: bata, Bizkaian dago kokatua, eta bestea, Madrilen.

Gainera, haren produktuak Gipuzkoako Lurralde Historikoan banatzeko, han kokatua den biltegi bat du, zeinetik banatzen baitira Bizkaiko instalazioetan fabrikatzen dituen material eta osagaiak.

Osagai elektrikoek mantentze eta konpontzearen saldu osteko zerbitzuak Madrilen dituen tailerretan bakarrik ematen ditu, bertan baititu matxurak sumatu eta konpontzeko makinaria eta instalazio egokiak, bertara igortzen direlarik berrikusi edo konpondu behar diren piezak eta ekipoa.

Zehatz esanda, aipatu diren ekitaldietan, honako hauek izan ziren enpresak bere ondasunak entregatu eta beronen instalazioen arteko bakoitzetik egin izaniko zerbitzuen ondorioz lorturiko ordainei dagozkien datuak:

Urtea	Guztira	Bizkaia Emateak	Gipuzkoa Emateak	Madril Emateak	Madril Zerbitzuak
2007	6.750.000 € (%100)	4.050.000 € (%60)	675.000 € (%10)	1.350.000 € (%20)	675.000 € (%10)
2008	9.000.000 € (%100)	5.850.000 € (%65)	1.350.000 € (%15)	1.350.000 € (%15)	450.000 € (%5)
2009	10.500.000 € (%100)	5.880.000 € (%56)	840.000 € (%8)	3.150.000 € (%30)	630.000 € (%6)
2010	12.000.000 € (%100)	3.480.000 € (%29)	720.000 € (%6)	4.200.000 € (%35)	3.600.000 € (%30)
2011	22.000.000 € (%100)	17.600.000 € (%80)	1.540.000 € (%7)	1.540.000 € (%7)	1.320.000 € (%6)

Datu hauei arreta eginik, erakundeak beti aurkezten ditu Sozietateen gaineko Zergaren eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren autolikidazioak Bizkaiko Foru Ogasunean, Gipuzkoako Foru Ogasunean eta Zerga Administrazioako Estatuko Agentzian, zerga bioi dagozkien zenbatekoak ordaindu edo itzultzea eskatuz goian ageri den koadroan jaso diren proportzioetan.

B.2) Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokionez, aktuarioak sumatu du, 2010ean, erakundeak ez zuela denboraldi horretan zehar eginiko eta aitorturiko konponketa eta mantentzeko zerbitzuen BEZik jasanarazi ezta sartu ere (3.600.000 €ko zenbatekoagatik, urte horretako eragiketen bolumenaren % 30); izan ere, zerbitzu denak Alemanian den enpresa bati fakturatu zitzaizkion, zaborrak biltzeko zerbitzuak eskaintzeko enpresa horrek erabiltzen dituen ibilgailu elektrikoen osagai jakin bat konpontzeagatik. Erakundeak eman zituen fakturak zerbitzu hauengatik, Administrazio germaniarrak emaniko alemaniar erakundearen IFK BEZ adieraziz, baina ez zuen, horiek zirela eta, kuotarik jasanarazi ezta sartu ere.

Gainera, baita 2010 ekitaldi horretan, Toledon kokatua dagoen eta metalak berregokitzen diharduen enpresa bati saldu zizkion metalezko hondakinen 90.000 kilogramo, madrildar lantegikoak zirenak, 270.000 €ko zenbatekoagatik, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuota jasanarazi gabe.

Azkenik, urte horretan zenbait inbertsiori ekin zien. Guzti horregatik, 2010ean, erakundeak 2.000.000 €ko konpentsatzeko kuota bat aitortu zuen denboraldi horretan jardun zuen Administrazio bakoitzaren aurrean, gorago jaso diren portzentajeekin bat etorriz.

Geroago, 2011n, dihardueneko Administrazio bakoitzean konpentsatu zituen kuota horiek, lurralde bakoitzean 2011 ekitaldi horretan zehar egin izaniko eragiketen ondoriozko portzentajeetan.

X finantzen ikuskatzailearen iritziz, konpainiak jasanarazi eta sartu egin behar zuen gorago aipaturiko eragiketei zegokien Balioa Erantsiaren gaineko Zerga, 100etik 18ko portzentaje orokorrean; hala ere, Madrilen kokatuak diren eragiketak direnez gero, txosten bat egitea erabaki du ikuskatzaile-buruari zuzendua, informazioa bidaltzeko Zerga Administrazioko Estatuko Agentziari, honek eska dezan dagokion BEZa.

B.3) Sozietateen gaineko Zergari dagokionez, konpainiak Zergaren bizkaitar araudia aplikatzen du, beti aitortzen ditu sartzeko kuotak (Zergaren portzentaje orokorrean kalkulatuak), eta dihardueneko Administrazioen Ogasunetan sartzan ditu jadanik aipatu diren portzentajeetan.

B.4) 2008ko Sozietateen gaineko Zergari dagokionez, denboraz kanpo autolikidatu diren 10.000 €z gain, aktuarioak sumatu du erakundeak 2008ko ekainaren

lean gauzatu zuela jarduerari atxikitako pabilioi industrial bat saltzeagatik lortu zuen zenbatekoa berriro inbertitzeko 2005eko uztailaren 30ean hartutako konpromisoa. Aipatu den salmentak, 350.000 €ko gainbalioa sorrarazi zion erakundeari.

Berrinbertsioa beste pabilioi industrial bat erostean gauzatu zuen, berriagoa eta modernoagoa, berehala hirugarren bati laga ziona 6 urterako errentamendu-kontratu baten bidez, eta, berau amaitzean, erosteko aukera izango da, ondasunak duen balioaren % 10ean. Errentamendu hau antolatzeko, erakundeak enplegatu bat du zeregin hauetan diharduena lanaldi osoz, eta badu lokal bat ere, jarduera horri soil-soilik atxikia.

B.5) Horrez gainera, enpresak eman eta aktuarioak lortu dituen datuen arabera, 2009ko urtarrilaren 1ean, “Componentes Eléctricos SA” erakundeak Bizkaiko konpainia baten kapital sozial osoaren akzioak erosi zizkion, 14.000.000 euroan, berarekin loturarik ez duen beste sozietate bati. Hain zuzen ere, “Electricidad del Norte SA”ren akzioak erosi ziren, eta ekipo elektrikoaren fabrikazioan diharduen enpresa horrek, Bizkaiko Foru Ogasun honetan tributatzen du osorik.

Honako hauek izan ziren “Electricidad del Norte SA” konpainia erosiaren 2008ko abenduaren 31n itxi zen azken balantzean jaso ziren datuak:

Aktiboa		Pasiboa	
Lurrak	6.000.000 €	Kapitala	5.000.000 €
Eraikuntzak	4.050.000 €	Erreserbak	5.000.000 €
Makinak	900.000 €	Zorrak epe luzean	600.000 €
Bezeroak	50.000 €	Zorrak epe laburrean	400.000 €
Guztira	11.000.000 €	Guztira	11.000.000 €

“Electricidad del Norte SA” sozietatearen akzioak erosteagatik ordaindutako prezioa, 14.000.000 €, justifikatzen da bat datozelako konpainiaren aktiboen eta pasiboen egiazko balioa eta haren kontabilitateko balio garbia; horrez gain, enpresa, beronek sorturiko 2.000.000 €tan balioztatzen den marka baten titularra da.

Lur eta eraikuntzek balio hori dute, konpainiak oraintsu erosi dituelako (Bizkaian daude), eta, gainera, enpresak baimena duelako lur horietan biltegi handi eta guztiz mekanizatu bat eraikitzeko, balio erantsi handikoa eta hirugarrenei zerbitzu logistikoak egitea ahalbidetuko diena. Higiezinek gutxieneko balio egozgarririk ez badute ere, kanpoko bi adituk berretsi egin zuten merkatuan duten prezioa.

Era berean, enpresaren markaren eta etorkizunean mozkinak sorrarazteko gaitasunaren balioa zehaztu egin zen kanpoko adituek, behar den beste arrazoiturik, emaniko txostenen bidez.

Guzti horregatik, konpainiak, 2009 eta 2010 ekitaldietan, doikuntza negatibo bat agerrarazi zion 800.000 €ko kontabilitatezko emaitzari zergaren autolikidazioetan. Hain zuzen ere, “Electricidad del Norte SA”ren akzioengatik ordaindu zen prezioan sarturiko ukiezinen balioaren kontabilitatez kanpoko amortizazioa dela eta. Gainera, 2009an, “Electricidad del Norte SA” filialak 600.000 €ko galera izan zuen kontabilitatean, makineriaren zati baten balioaren behin betiko galeraren bestekoa, haren instalazioetan jasandako sute baten ondorioz; hala ere, horrek ez zuen eraginik izan, gerora begira, mozkinak lortzeko gaitasunean.

Arazoi hau dela medio, “Electricidad del Norte SA”k ere 600.000 €ko zerga-oinarri negatiboa aitortu zuen, eta beronen akziodun bakarrak ere (“Componentes Eléctricos SA”), 600.000 €ko galera agerrarazi zuen bere kontabilitatean eta Zergaren autolikidazioan, akzioen narriaduragatik, zeren, erakunde filialak izan zuen galeraren ondorioz, honen ondare garbia, ekitaldiaren amaieran diren esangabeko gainbalioetan zuzendurik, 13.400.000 €ra murriztu zen.

B.6) Geroago, 2011n, “Componentes Eléctricos SA” sozietateak “Electricidad del Norte SA” filiala xurgatu zuen, Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren VIII. tituluaren X. kapituluko bategiteen araubide bereziaren pean eginiko eragiketa baten bidez.

Xurgapena Merkataritzako Erregistroan inskribatu zen, 2011ko urtarrilaren 2an, urte horretako urtarrilaren 1etik aurrera izanik kontabilitate eta zergazko ondorioak.

Erakunde xurgatzaileak ez zuen inolako errentarik aitortu bereak ziren xurgatuaren akzioak ezeztatzeagatik, eta akzioon kontabilitatezko balio garbia eman zien (13.400.000 €koa) xurgaturiko konpainiaren aktibo eta pasiboak, zerga-ondorio guztiekin. Bere aldetik, erakunde xurgatuak ez zuen zergarik ordaindu xurgapenaren ondoriozko inongo errentarengatik.

Xurgapena egin zen unean, xurgatuaren aktibo eta pasiboak, erostea egiterakoan zeuden berberak ziren, eta haien egiazko balioek ez zuten aparteko aldatarik izan une

horretatik aurrera, salbu eta makineriari buruz (600.000 €tan narriatu zena) gorago adierazia, honako koadro honetan adierazten den moduan:

Lurrak	Eraikuntzak	Makinak	Bezeroak	Marka	Merkataritza-funtsa	Zorrak
6.000.000	4.050.000	300.000	50.000	2.000.000	2.000.000	(1.000.000)

Guzti horregatik, 2011n, konpainiak kontabilitatez kanpoko doikuntza negatibo berri bat adierazi zion Zergaren autolikidazioan 800.000 €ko kontabilitatezko emaitzari, kasu honetan bizitza erabilgarri mugagabeko ukiezinen (marka eta merkataritza-funtsa) balioaren kontabilitatez kanpoko amortizazio-kontzeptuan, zeinak xurgapena egin eta gero izan baitira aitortuak zerga ondorioetarako.

Gainera, 2011n, erakunde xurgatzaileak konpentsatu egin zuen 200.000 € xurgatuak 2009an egiaztatu zituen (honek 2010ean aplikatu ez zituenak) zerga oinarri negatiboan 600.000 €tatik, konpentsatzeko utzirik gainerako 400.000 €ak.

X finantzen ikuskatzailearen iritziz, xurgapenak ez du arrazoi ekonomiko baliodunik, eragiketa artifisial nabaria baita; hortaz, proposatzen da zuzenean kentzea enpresak egin duen zerga oinarri negatiboaren konpentsazioa, konpainiari zehapen egokiak ezartzea eta sozietate xurgatuari zergak ordainaraztea eragiketean adierazi duen errentarengatik.

Gainera, Ondare-Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren dagozkion aktak egiten hasi da, sumatuz xurgatzeko eragiketak ez duela ordaindu egin Zergaren inongo modalitatetan.

B.7) Azkenik, xurgapen hau aztertzeko prozesuan jakin ahal izan du erakunde xurgatuak 600.000 €ko kalte-ordain bat jaso zuela 2006ko urtarrilean, errentaria zeneko nabe industrial batean zituen errentamendu-eskubideetan jabearen alde uko egiteagatik. Kalte-ordain honetan ez zuen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren inolako kuotarik jasanarazi.

Aktuarioaren iritziz, eragiketa horretako Balio Erantsiaren gaineko Zerga ez da preskribatu, horretaz Zeharkako Zergen Zerbitzuaren buruaren errekerimendu bat baitago, 2009ko apirilaren 9an jakinarazia; hala ere, ezinezkoa da ezer egitea, jadanik

desegina den konpainia baten zerga-zor bat delako. Hala ere, txosten bat egin du, hierarkian goragoko duena gaiaz jakitun jartzeko.

C) Batzar batzuk egin ondoren, zergaduna ados dago bere zerga-egoera aktuarioak egin nahi duen modura arautzeaz, baita zehapenak inposatzeko proposamenaz ere; izan ere, haren aurrean idatzizko konpromisoa hartu du ordaintzeko, bai zerga-kuotak eta baita zehapenak ere, zenbatekoei aurre egin ahal izateko eskatu behar duen ordainketaren zatikatzean ezartzen diren epeetan.

Hori dela eta, X finantzen ikuskatzaileak honako adostasun-akta hauek prestatzen ditu, ordaintzeko konpromisoaz:

i) Adostasun-akta bat, ordaintzeko konpromisoaz, Sozietateen gaineko Zergaren zergaldi aztertu bakoitzarengatik (2008, 2009, 2010 eta 2011).

ii) Adostasun-akta bat, ordaintzeko konpromisoaz, urte natural bakoitzari dagokion Balio Erantsiaren gaineko Zergagatik.

iii) Adostasun-akta bat, ordaintzeko konpromisoaz, Ondare-Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergagatik.

Ebazpena.

Zehaztu itzazu aurreko planteamenduan aipatu diren egiaztapen eta ikerketa jarduketetan agerian jarri beharko lirakeen zergen arloko gorabehera guztiak, eta, ondorioz, azaldu honako alderdi hauek:

* Goian azalduko zerga arloko kontzeptu eta likidazio-aldien zerga-erregularizazioaren bidezkoasuna, bai eta erregulazio horrek izan beharko lukeen edukia. Ildo horretan, zehaztu ezazu ea formalizatu behar ote diren planteamenduan aipatzen diren ikuskaritza-aktak, edo, aitzitik, ea haietarikoren bat ez den bidezkoa, edo, are, ea halako kasuetan abiarazi beharrekoetarikoren bat falta den. Horretarako, kontuan izan behar da ez dela aipatu behar, zergapekoaren zerga-egoera zuzena izanik, erregulaziorik behar ez duen likidazio-aldi edo zergaldirik.

* Eskatzen da zehaztea ea zer eduki izan behar duten aktetan jaso beharreko erregularizazioek, baina ez duzu zertan azaldu erregulariazioon ondorioz egin beharko litzatekeen likidazio-proposamenik.

* Finantzen ikuskatzaileak egindako eta aurreko planteamenduan islatutako jardueren ordenamendu juridikoarekiko adostasuna juzgatu. Haien jardueretan prozedurazko anomaliaren bat edo funtsezko anomaliaren bat aurkitzen bada, proposa itzazu, orduan, jarduera zuzenak, kontuan harturik zein izango zitekeen jarduera zuzena.

* Ikuskapenean atzemandako zergen arloko gorabeheren arabera, zer jarduera hasi beharko lituzkeen finantzen ikuskatzaileak –are azaldutarikoen artean sartu ez diren beste jarduera espezifikoki batzuk–, bai eta, hala badagokio, jarduerok ez hasteko izan litezkeen arrazoen justifikazioa.

* Bereziki, azal ezazu ea zein kasutan formaliza daitekeen ordaintzeko konpromisoa ere badakarren adostasun-akta bat, eta ea zer baldintza bete behar diren halako akta bat sinatzeko.

* Zehaztu ezazu ea kasu honetan zehapen-espediterik abiarazi behar ote den, ea zer kontzepturengatik egin behar den, zer arau-haustetan oinarrituta eta ea zer zehapen ezar litekeen.